

I. ERANSKINA

HASIERAKO LANBIDE KUALIFIKAZIOKO PROGRAMA

Izena: **MIKROINFORMATIKA TRESNERIA MANTENTZEKO LANGILEA.**

Kodea: INF1018

Lanbide-arloa: Informatika eta komunikazioak.

1. LANBIDE PROFILA

A. *Konpetentzia orokorra:* Mikroinformatika-tresneria, periferikoak eta lotutako softwarea muntatzeko, instalatzeko, konfiguratzeko eta egiaztatze eta sare lokal kableatuak eta hari gabekoak muntatzeko eragiketa osagarriak egitea, argibide eta prozedura egokiei jarraiki, kalitate-irizpideak eta laneko segurtasuneko arauak kontuan hartuta eta ingurumena errespetatuta, arduradun baten gainbegiratupean.

B. *Konpetentzia sozialak, pertsonalak eta profesionalak*

- Informatikari dagozkion laneko tresneria, lanabesak eta erremintak garbitzeko eta prest jartzeko eragiketak egitea, higie- eta osasun-arauak eta emandako argibideak errespetatuta.
- Osagaiak eta beharrezkoa den softwarea kalitate-irizpideen eta aurrez finkatutako argibideen arabera hartzea, banatzea eta biltegitzea, gero erabiltzeko.
- Beharrezkoak diren osagaien, erreminten eta softwarearen barne-hornikuntza egitea, gero mikroinformatika-tresneria muntatzeko eta mantentzeko lanetan erabiltzeko, betiere laneko segurtasuneko arauak kontuan hartuta.
- Mikroinformatika-tresneria, sistema eragilea eta softwarea muntatzeko eragiketa osagarriak egitea, eta, eginkizun horretan, gida xehatuak erabiltzea, emandako argibideei jarraitzea eta ezarritako segurtasun- eta kalitate-arauak betetzea.
- Mikroinformatika-tresneria, sistema eragilea eta softwarea mantentzeko eragiketa osagarriak egitea, eta, eginkizun horretan, emandako argibideei jarraitzea eta ezarritako segurtasun- eta kalitate-arauak betetzea.
- Informazioaren teknologiek eragiketa osagarriak egitea eta sare lokalak eta hari gabekoak muntatzea, eta, eginkizun horretan, emandako argibideei jarraitzea eta ezarritako segurtasun- eta kalitate-arauak betetzea.
- Norberaren ahalmena identifikatzea, eta orientazio-puntuak, laguntza eta aukerak onartzea, norberaren garapen pertsonalean eta profesionalen.
- Etorkizuneko garapenarekin lotzen diren egitura sozialak eta profesionalak identifikatzea, eta egokitze eta aurrera egiteko beharrezko printzipioak, harremanak eta portaerak ezagutzea.
- Bizitza ekonomikoan, sozialean eta kulturean parte-hartze aktiboa izatea, jarrera kritikoz eta arduratsuz, arazoak konpontzeko eta erabaki koherenteak hartzeko garaian.

C. *Kualifikazioen eta/edo konpetentzia-atalen zerrenda*

- Lanbide-kualifikazio osoa:
 - Mikroinformatika-sistemak muntatzeko eta mantentzeko eragiketa osagarriak (IFC361_1, 1701/2007 Errege Dekretua)
 - Konpetentzia-atala: mikroinformatika-tresneria muntatzeko eragiketa osagarriak egitea.

- Konpetentzia-atala: mikroinformatika-sistemak mantentzeko eragiketa osagarriak egitea.
 - Konpetentzia-atala: informazioaren eta komunikazioaren teknologiekiko eragiketa osagarriak egitea.
- Lanbide-kualifikazio partzialak:
 - Mikroinformatika-sistemak (IFC078_2, 295/2004 Errege Dekretua eta 1201/2007 Errege Dekretua)
 - Konpetentzia-atalak: mikroinformatika-sistemetan oinarritzko softwarea instalatzea eta konfiguratzeko.
 - Prestakuntza-kreditua: mikroinformatika-sistemen oinarritzko mantentze-lanak.
 - Konpetentzia-atala: sare lokaleko elementuak ezarritako prozeduren arabera instalatzea, konfiguratzeko eta egiaztatzea.
 - Prestakuntza-kreditua: sare lokaleko eta hari gabeko sareko elementuak instalatzea eta konfiguratzeko.
 - Konpetentzia-atala: helburu orokorreko informatika-paketeak eta aplikazio espezifikoak instalatzea, konfiguratzeko eta mantentzeko.
 - Prestakuntza-kreditua: askotariko softwarea eta utilitate espezifikoak instalatzea eta konfiguratzeko.

D. Lanbide-ingurunea

- Lanbide-esparrua
Laguntzaile gisa egingo du lan, informatika-tresneria duten edozein tamaina eta produkzio-sektoretako enpresa edo erakunde publiko zein pribatuetan, bai bere kontura bai besteren kontura.
- Produkzio-sektoreak
Laguntzaile gisa egingo du lan, informatika-tresneria duten edozein tamaina eta produkzio-sektoretako enpresa edo erakunde publiko zein pribatuetan, bai bere kontura bai besteren kontura.
- Lanbide eta lanpostu adierazgarrienak
Mikroinformatika-tresneria muntatzeko langilea, mikroinformatika-sistemak mantentzeko langilea, mikroinformatika-tresneriaren instalatzailea, mikroordenagailuen konpontzailea, mikroinformatikako saltzailea, laguntza teknikoko langilea, informatika-sareen instalatzailea.

2. IRAKASKUNTZAK

A. Nahitaezko moduluak eta prestakuntza-kredituak, berariazkoak eta orientazio eta tutoretzakoak

1. Mikroinformatika-osagaiak muntatzeko eragiketa osagarriak.
2. Mikroinformatika-sistemak mantentzeko eragiketa osagarriak.
3. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiekiko eragiketa osagarriak.
4. Mikroinformatika-sistemen oinarritzko mantentze-lanak.
5. Sare lokaleko eta hari gabeko sareko elementuak instalatzea eta konfiguratzeko.
6. Askotariko softwarea eta utilitate espezifikoak instalatzea eta konfiguratzeko.
7. Lantokiko prestakuntza.
8. Orientazioa eta tutoretza.

B. Nahitaezko prestakuntza-modulu orokorrak: berariazko ebazpen batean argitaratuko dira.

1. Prestakuntza-modulua: **MIKROINFORMATIKA OSAGIAK MUNTATZEKO ERAGIKETA OSAGARRIAK.**

Konpetentzia-atal honi lotuta dago: mikroinformatika-tresneria muntatzeko eragiketa osagarriak egitea.

Edukiak eta lorpen-mailaren adierazleak

Mikroinformatika-tresneria muntatzeko elementu elektrikoak eta elektronikoak deskribatzea.

- Tresneria muntatzeko erabil daitezkeen elementu elektriko eta elektronikoen ezaugarriak azaltzea.
- Osagai elektronikoak segurtasunez manipulatzeko aldez aurreko eragiketak eta egiaztapenak deskribatzea.
- Elementu elektrikoak eta elektronikoak manipulatzeko aplikatu beharreko segurtasun-neurriak identifikatzea eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko segurtasun-araudia kontuan hartzea.

Mikroinformatika-sistema batean hardware osagaiak identifikatzea, informatika-tresnerian muntatzeko, ordeztzeko eta konektatzeko.

- Mikroinformatika-sistema baten bloke funtzionalak identifikatzea.
- Mikroinformatika-sistema baten hardware osagaietariko bakoitza identifikatzea eta horien ezaugarriak eta sistema osatzen duten elementuak zehaztea.
- Mikroinformatika-sistema baten dauden atakak, barne-erretenak eta konexio-kableak identifikatzea, eta kableak datuenak edo elikatzeak diren identifikatzea.

Informatika-tresneria sortzeko barneko hardware osagaiak muntatzeko eta mihiztatzeko prozesuetan esku hartzen duten elementuak identifikatzea.

- Mikroinformatika-sistema baten barneko hardwarea integratzeko edo mihiztatzeko prozedurei buruzko argibideak interpretatzea.
- Mikroinformatika-sistema baten barneko hardware osagaiak muntatzeko, ordeztzeko edo konektatzeko prozeduretan erabili beharreko erremintak identifikatzea.
- Plaka nagusietan mikroprozesadoreak eta barreiatzaileak konektatzeko zokaloak eta haietariko bakoitza finkatzeko bitartekoak identifikatzea.
- Mikroinformatika-sistema baten dauden atakak, barne-erretenak eta konexio-kableak eta horiek finkatzeko sistemak identifikatzea, eta elementu horiek guztiak eskema grafikoan bitartez identifikatzea.
- Mikroinformatika-tresneriaren txartel-konektoreak itxuraren eta koloreen bitartez eta eskemak eta diagramak erabilia identifikatzea.
- Gailu edo txartel bat dagokion artekan edo erretenean instalatzeko posizio zuzenak instalazio-gida xehatuaren arabera identifikatzea.
- Mikroinformatika-sistema batean barneko hardware osagaiak integratzeko edo mihiztatzeko prozeduretan erabiltzen diren erremintak erabiltzeko eta maneiatzeko ezarritako segurtasun-arauek deskribatzea.

Periferikoak muntatzeko, ordeztzeko edo konektatzeko prozeduretan esku hartzen duten elementuak deskribatzea eta prozedura horiek aplikatzea sistemaren funtzionaltasuna areagotzeko edo mantentzeko.

- Mikroinformatika-sistema baten periferikoak muntatzeko, ordeztzeko edo konektatzeko prozedurei buruzko argibideak interpretatzea.
- Mikroinformatika-sistema baten periferikoak muntatzeko, ordeztzeko edo konektatzeko prozeduretan erabili beharreko erremintak identifikatzea.
- Periferikoak konektatzeko mikroinformatika-tresneriaren kanpoko atakak identifikatzea, krokisak eta eskema grafikoak erabilia.
- Periferikoak mikroinformatika-tresneriarekin konektatzeko erabili beharreko datu-kableen eta elektrizitatez elikatzeak kableen konektore motak eta horien ezaugarriak ezagutzea.
- Periferikoen edo mikroinformatika-tresneriaren arteko konexiorako datu-kableak egiteko erabiltzen diren prozedurak eta erremintak deskribatzea.
- Hautatutako prozedura justifikatzea, eta besteekin alderatuta dituen alde onak azaltzea.
- Mikroinformatika-sistema batean periferikoak muntatzeko, ordeztzeko edo konektatzeko prozeduretan erabiltzen diren erremintak erabiltzeko eta maneiatzeko ezarritako segurtasun-arauek betetzea.
- Datu-konexioak eta elektrizitatez elikatzeak konexioak segurtasunez manipulatzeko prebentzio-neurriak zerrendatzea, osagai mota kontuan hartuta.

Mikroinformatika-sistema testeatzeko prozedurak eta erremintak identifikatzea eta aplikatzea, periferikoak eta osagaiak muntatzeko, ordeztzeko edo konektatzeko lanak egiaztatzeko.

- Egiaztatu beharreko elementua kontuan harturik, muntatzeko edo ordeztzeko prozesuetan aplikatu beharreko testeatzeko prozeduren gidak identifikatzea.
- Hardware osagai bakoitzarekin lotutako testeatzeko erremintak eta prozedurak sailkatzea.
- Datu-kableatua egiaztatzeako erremintak deskribatzea eta horretarako gida xehatuak maneiatzea.

- Mikroinformatika-tresneriak pizteko prozedura eta POST testa egiten duela egiaztatzen prozedurak deskribatzea eta aplikatzea.
- Sistema eragilea kargatzeko eragiketak eta mikroinformatika-tresneria abiarazteko fasean izan litezkeen hutsegiteak deskribatzea.
- Hautatutako prozedura justifikatzea, eta besteekin alderatuta dituen alde onak azaltzea.

Oinarrizko elementu elektrikoak eta elektronikoak

- Elektrizitateko kontzeptuak: korrante zuzena eta alternoa; magnitude elektrikoak; magnitude elektrikoak neurtzeko aparatuak; pilak eta bateriak.
- Sakagailuak. Etengailuak.
- Elikatze-iturriak.
- Osagai elektronikoak: erresistentziak, kondentsadoreak, diodoak, transistoreak, LEDak, besteak beste.
- Zirkuitu integratuak.
- Erreminta eta osagai elektrikoak eta elektronikoak erabiltzeko segurtasuna.
- Segurtasun elektrikoak: arrisku elektrikoak aurrea hartzeko neurriak; deskarga elektrikoak eragindako kalteak.

Ordenagailuaren arkitektura

- Informatika-sistema baten unitate funtzionalak.
- Prozesatzeko unitate zentrala.
- Memoria.
- Sarrera-irteerako sistema: euskarriak eta periferikoak.
- Oinarrizko osagaiak: VGA, sarea, CPU, eta abar.

Mikroinformatika-tresneriaren barneko osagaiak

- Karkasak, motak.
- Elikatze-iturriak, motak.
- Haizagailuak eta bero-barreiatzaileak.
- Plaka nagusia, txipseta, EPROM memoria.
- Mikroprozesadoreak, zokaloak eta motak.
- Memoriak, ezaugarriak eta formatuak.
- Busak eta datu-konektoreak.
- Kableatua eta konektoreak.
- Zokaloak eta hedatze-erretanak.
- Hedatze-txartelak, ezaugarriak.
- Hedatze-txartel motak: grafikoa, soinua, sarea, eta abar.
- Osagaiak karkasetan finkatzeko elementuak eta horien motak.
- Biltegi-gailuak: disko gogorrak, ezaugarriak eta motak; irakurgailu/grabagailu optikoak, ezaugarriak eta motak.
- Bestelako osagaiak.

Mikroinformatika-sistema baten kanpoko konektoreak eta busak

- Atakak: paraleloa, seriekoa, USB (Universal Serial Bus), "Firewire" (IEEE 1394), besteak beste.
- Hari gabeko konektoreak: infragorritzko ataka (IrDA estandarra), irrati-maiztasuna, eta abar.
- Sarearen kableatua: kable eta konektore motak.

Mikroinformatika-periferikoak

- Oinarrizko periferikoak: monitorea, teklatua, sagua eta inprimagailuak.
- Beste periferiko batzuk: bozgorailuak, mikrofonoa, multimedia-gailuak, besteak beste.
- Konektagarritasun-gailuak: modema, errepikagailua, kommutadorea, bideratzailea, besteak beste.

Mikroinformatika-osagaiak eta -periferikoak muntatzeko, ordeztzeko eta konektatzeko teknikak

- Muntatzeko gidak.
- Informatika-osagaiak eta -periferikoak muntatzeko, ordeztzeko edo konektatzeko prozeduretan erabiltzen diren erremintak.
- Mikroinformatika-osagaiak karkasan eta plaka nagusian instalatzeko eta finkatzeko prozedurak.
- Mikroinformatika-sisteman gailu periferikoak konektatzea.

Mikroinformatika-tresneria egiaztatzen eta testean tekniken

- Testean eta egiaztatzen softwarea.
- Testean eta egiaztatzen prozedurak.

Mikroinformatika-osagaiak eta -periferikoak muntatzeko, ordeztzeko eta konektatzeko eragiketarako segurtasuna

- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak.
- Ingurumena babesteko arauak.
- Prozedurarako segurtasun-irizpideak eta -baldintzak.
- Istripu ohikoenen prebentzioa.
- Norbera babesteko ekipamendua eta segurtasun-bitartekoak.

Eduki horiek irakatsi ondoren, eduki horiek menderatzen dituenak gai izan beharko du moduluarekin lotzen diren kompetentzia-ataletan deskribatutako lanbide-jarduna gauzatzeko, betiere deskribatutako produkzio- eta informazio-bitartekoak erabiliz, eta hori guztia ohiko lanbide-testuinguruetan eta -egoeretan.

Prestakuntza-testuinguruaren oinarritzko eskakizunak

1. Espazioak eta instalazioak

Informatika-gela, 45 m²-koa.

2. Ekipamenduak

Informatika-tresneria. Babes- eta segurtasun-elementuak: betaurrekoak, eskularruak, eskumuturreko antiestatikoa, eta abar. Tresneria eta periferikoak muntatzeko erabili ohi diren erremintak eta lanabesak. Ordenagailuaren barneko osagaiak: prozesadoreak, memoria-moduluak, plaka nagusiak, eta abar. Sare-moldagailuak, bideokoak eta komunikazioetakoak, eta biltegi-ragailuak. Sare-konexioko gailuak: errepikagailuak, konmutadoreak, bideratzaileak, besteak beste. Interfaze fisikoak. Sarrerako, irteerako eta sarrera-irteerako periferikoak. Testeatzeko hardware eta software tresnak. Etenik gabeko elikatze-sistemak. Kableatu egituratua.

3. Hezitzailearen lanbide-profila

- a) Mikroinformatika-tresneria muntatzeko eragiketa osagarriak egitearekin lotzen diren ezagutzak eta teknikak menderatzea. Honako modu hauetakoren batekin frogatuko da:
 - Lanbide-alor honekin lotzen den goi-mailako teknikariaren prestakuntza akademikoa izatea, edo goragoko mailakoa.
 - Prestakuntza-modulu honekin lotzen diren kompetentzien alorrean gutxienez 2 urteko lanbide-esperientzia izatea.
- b) Administrazio eskudunek ezartzen dutenaren arabera egiaztatutako kompetentzia pedagogikoa izatea.

2. Prestakuntza-modulua: MIKROINFORMATIKA SISTEMAK MANTENTZEKO ERAGIKETA OSAGARRIAK

Kompetentzia-atal honi lotuta dago: mikroinformatika-sistemak mantentzeko eragiketa osagarriak egitea.

Edukiak eta lorpen-mailaren adierazleak

Euskarri eta periferikoen funtzionaltasuna egiaztatzeko teknikak deskribatzea eta prozedura horietan aplikatzea, haiek egiaztatzeko

- Euskarri eta periferikoen funtzionaltasuna egiaztatzeko teknikak identifikatzea, haietariko bakoitzaren teknologia kontuan hartuta.
- Euskarri eta periferikoen funtzionaltasuna egiaztatzeko prozedurei buruz emandako argibideak interpretatzea, haien funtzionamendu egokia egiaztatzeko eta frogatzeko.
- Hautatutako prozedura justifikatzea, eta besteekin alderatuta dituen alde onak azaltzea.
- Euskarrien eta bertan bildutako informazioaren egoera egiaztatzeko erabiltzen diren erreminten ezaugarriak identifikatzea, erabiltzeko gidei jarraiki.

Euskarriak eta periferikoak garbitzeko prozedurak identifikatzea eta aplikatzea, haien funtzionalitatea mantentzeko

- Egin beharreko euskarriak eta periferikoak garbitzeko prozedurei buruz jasotako argibideen gidak interpretatzea, haien barrualdera sartzeko edo iristeko elementuak nola ireki daitezkeen kontuan hartuta.
- Euskarri eta periferikoen ezaugarriak deskribatzea, haien mantentze-lanetan eragina duten alderdiak kontuan hartuta.

- Euskarriei, horien irakurtzeko/grabatzeko unitateei, inprimagailuei, teklaturari, saguei eta bestelako gailuei zer-nolako mantentze-lanak eta garbiketa egin behar zaizkien identifikatzea.
- Hautatutako prozedura justifikatzea, eta besteekin alderatuta dituen alde onak azaltzea.
- Euskarriak eta periferikoak garbitzeko prozedurak aplikatzeko beharrezkoak diren erremintak eta gailuak sailkatzea, horiek erabiltzeko gidak erabilia.

Mikroinformatika-sisteman eta periferikoetan erabiltzeko beharrezkoak diren elementu kontsumigarriak deskribatzea, eta horiek ordeztzeko lanak egitea

- Mikroinformatika-sistema batean dauden periferikoei berezkoak zaizkien elementu kontsumigarriak deskribatzea, egun dauden teknologiak kontuan hartuta.
- Ingurumenarekiko errespetuaren alorrean, informatika-kontsumigarriak birziklatzeari eta ezabatzeari buruz dagoen araudia identifikatzea.
- Inprimagailuetan eta beste periferiko batzuetan elementu kontsumigarriak ordeztzeko prozedurak interpretatzea.

Mikroinformatika-tresneriaren erreplika fisikoa —"klonazioa"— esku hartzen duten elementuak identifikatzea eta klonazio-prozedurak aplikatzea

- Mikroinformatika-sistemetan diskoak eta partizioak fisikoki erreplikatzeko ("klonazioa") funtzioak deskribatzea, erabiltzaile mota bakoitzari berezkoak zaizkien software instalazioak kontuan hartuta.
- Mikroinformatika-tresnerien arteko klonazio-prozedura batean esku hartzen duten elementu fisikoak identifikatzea, eta horien erabilera eta eragin ditzaketan arazoak adieraztea.
- Diskoen edo partizioen irudiak instalatzeko erabiltzen diren software tresnen ezaugarriak deskribatzea, eta tresna horiek aplikatzeko murrizketak adieraztea.
- Garraiatzeko eta gero instalatzeko erabiliko diren diskoen edo disko-partizioen irudiak biltegitzeko euskarriak bereiztea, gida xehatuen arabera.
- Hautatutako prozedura justifikatzea, eta besteekin alderatuta dituen alde onak azaltzea.
- Mikroinformatika-sistema bat abiarazteko faseak banan-banan aipatzea, instalatutako irudiaren funtzionaltasuna egiaztatzeko, egindako "klonazio" mota kontuan hartuta.

Tresneria, periferikoak eta kontsumigarriak biltegitzeko eta lekualdatzeko eragiketak deskribatzea eta egitea

- Mikroinformatika-sistema baten tresneria eta osagaiak manipulatzeko, garraiatzeko eta biltegitzeko baldintzak deskribatzea.

Mikroinformatika-sistemak mantentzeko teknika osagarriak

- Informatika-sistemak mantentzea. Garrantzia. Mantentze-lanen mailak.
- Mikroinformatika-sistemak mantentzeko teknika osagarriak deskribatzea eta sailkatzea.

Mikroinformatika-sistemak egiaztatzeko eta diagnostikatzeko tresnak

- POST (Power-On Self Test) prozedurak.
- Informatika-sistemak diagnostikatzeko tresnak.
- Informazio-euskarriak egiaztatzeko eta optimizatzekeo tresnak.

Informatika-tresneria mantentzea

- Mantentze-lan prebentiboak egiteko software tresnak.
- Biltegitze-unitateen aldirian behingo mantentze-lanak.
- Informazio-euskarrien mantentze-lanak.
- Euskarriak eta periferikoak garbitzeko teknikak.

Mikroinformatika-sistemen elementu kontsumigarriak

- Motak eta ezaugarriak.
- Elementu kontsumigarriak kontserbatzeko eta birziklatzeko neurriak.
- Elementu kontsumigarriak ordeztzeko prozedurak.
- Elementu kontsumigarriak manipulatzeko eta ordeztzeko prozeduretako segurtasuna.

Mikroinformatika-tresnerian partizioak eta disko gogorrak fisikoki erreplikatzeko metodoak

- Erreplikazio-prozesuaren funtzionaltasuna eta helburuak.
- Erreplikazio-prozesuko segurtasuna eta prebentzioa.
- Disko-partizioak: partizio motak eta horiek kudeatzeko tresnak.
- Sistemen irudiak eta erreplikak sortzeko eta ezartzeko tresnak: informazio-jatorriak; sistemen irudiak eta erreplikak ezartzeko prozedurak; sistemen irudiak eta erreplikak egiaztatzekeo prozedurak.

- Lege-problematika.

Informatika-hondakinen tratamendua

- Informatika-hondakinen tratamendua, ezabapena eta aprobetxamendua.
- Informatika-hondakinak birziklatzeko eta ezabatzeko lekuak.

Eduki horiek irakatsi ondoren, eduki horiek menderatzen dituenak gai izan beharko du moduluarekin lotzen diren konpetentzia-ataletan deskribatutako lanbide-jarduna gauzatzeko, betiere deskribatutako produkzio- eta informazio-bitartekoak erabiliz, eta hori guztia ohiko lanbide-testuinguruetan eta -egoeretan.

Prestakuntza-testuinguruaren oinarrizko eskakizunak

1. Espazioak eta instalazioak

Informatika-gela, 45 m²-koa.

2. Ekipamenduak

Informatika-tresneria. Euskarriak eta periferikoak garbitzeko tresnak. Biltegiragailuak. Sareko gailuak: errepikagailuak, kommutadoreak, bideratzaileak, besteak beste. Interfaze fisikoak. Periferikoak. Periferikoetako eta bestelako gailu korporatiboetako elementu kontsumigarriak. Sareko lotura malguak, elikatze-kableatuak eta tresneria eta periferikoen arteko datu-kableatuak. Tresneria, periferikoak eta kontsumigarriak enbalatzeko materiala. Tresneria klonatzeko software aplikazioak. Sistema eragilea. Programa eta informatika-aplikazio jabedunak zein jabegabeak.

3. Hezitzailearen lanbide-profila

- a) Mikroinformatika-sistemak mantentzeko eragiketa osagarriak egitearekin lotzen diren ezagutzak eta teknikak menderatzea. Honako modu hauetakoren batekin frogatuko da:
 - Lanbide-alor honekin lotzen den goi-mailako teknikariaren prestakuntza akademikoa izatea, edo goragoko mailakoa.
 - Prestakuntza-modulu honekin lotzen diren konpetentzien alorrean gutxienez 2 urteko lanbide-esperientzia izatea.
- b) Administrazio eskudunek ezartzen dutenaren arabera egiaztatutako konpetentzia pedagogikoa izatea.

3. Prestakuntza-modulua: **INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIEKIKO ERAGIKETA OSAGARRIAK.**

Konpetentzia-atal honi lotuta dago: informazioaren eta komunikazioaren teknologiekiko eragiketa osagarriak egitea.

Edukiak eta lorpen-mailaren adierazleak

Informatika-sistema baten bloke funtzionalak identifikatzea eta tresneriaren elementuak eta periferikoak ezagutzea

- Informatika-sistema baten osagai fisikoak identifikatzea.
- Periferikoen funtzioak eta ezaugarriak azaltzea, eta haiek informatika-sistemarekin konektatzeko bitartekoak eta erabiltzen duten kontsumigarri mota lokalizatzea.
- Biltegiratze-unitateen funtzioak eta ezaugarriak deskribatzea eta dagozkien euskarriak adieraztea.
- Informatika-tresneria eta bere periferikoak abiarazteko eta geldiarazteko prozedurak deskribatzea, eta prozedura horietan sor daitezkeen arazoak identifikatzea.

Sistema eragilearen oinarrizko komandoak eta utilitateak deskribatzea eta maneiatzea

- Sistema eragilearen funtzioak azaltzea eta informatika-sistemaren elementuekin erlazionatzea.
- Sistema eragileak emandako erabiltzaile-interfazearen elementuak bereiztea eta erabiltzea informatika-tresneriaren barruan mugitzeko eta lan-ingurune bat prestatzeko.
- Sistema eragileak fitxategi-sistema maneiatzeko emandako tresnak eta funtzionaltasunak identifikatzea, eta karpetak, unitate lokalak eta urrunekoak bereiztea.
- Sistema eragileak informatika-tresneriarekin konektatutako periferikoak maneiatzeko emandako aplikazioen ezaugarriak banan-banan aipatzea.
- Sistema eragileak sare lokal baten barruan sartzeko eta bertan baliabideak partekatzen emandako tresnak eta zerbitzuak deskribatzea, eta fitxategi-sistemarekin behar bezala erlazionatzea.

Multimedia-gailuak identifikatzea eta horien informazioa lortzea multimedia-aplikazioak erabilia

- Multimedia-gailuak eta informatika-tresneriarekiko konexioa identifikatzea, multimedia-aplikazioekin erabiltzeko, eta dagozkien atakekin konektatzea.
- Multimedia-informazioak erregistratzeko erabiltzen diren konpresio-formatu motak identifikatzea, eta beren erabilerekin eta erabiltzen dituzten aplikazioekin erlazionatzea.

Testu-prozesadore baten funtzio nagusiak deskribatzea eta erabiltzea, eta dokumentu sinpleak eta oinarritzkoak egitea

- Testu-prozesadore baten funtzioak eta ezaugarriak azaltzea, eta landu beharreko dokumentu motekin erlazionatzea.
- Testu-prozesadorearen tresnak erabilia, dokumentuak sortzeko, aldatzeko eta manipulatzeko prozedurak deskribatzea.
- Dokumentuetan bildutako testuari haien itxura hobetzeko aplika dakizkiokeen formatuak identifikatzea.
- Hautatutako prozedura justifikatzea, eta besteekin alderatuta dituen alde onak azaltzea.
- Dokumentuetan multimedia-edukia txertatzeko erabiltzen diren funtzioak deskribatzea, objektu mota kontuan hartuta.

Internetek barneko sarean eta kanpokoan bilaketak egiteko ematen dituen utilitateak deskribatzea eta maneiatzea

- Internet sarearen eta intranet korporatibo baten ezaugarriak eta funtzioak azaltzea, eta bilatu eta erabili beharreko informazio motarekin erlazionatzea.
- Web orri baten ezaugarriak eta orrien artean nabigatzeko aukerak banan-banan aipatzea, eta orri seguruak eta ez-seguak bereiztea.
- Sarean zehar nabigatzeko, informazioa bilatzeko eta bilaketa-irizpideak gehitzeko erabiltzen diren tresnak ezagutzea.
- Hautatutako prozedura justifikatzea, eta besteekin alderatuta dituen alde onak azaltzea.

Internet sareak eta "intranet" korporatiboak erabiltzaileen artean informazioa trukatzeko eskaintzen dituzten utilitateak deskribatzea eta maneiatzea

- Posta-tresnek informazioa trukatzeko eskaintzen dituzten funtzionaltasunak azaltzea, eta lana antolatzeko eta zereginen jarraipena egiteko aukerak adieraztea.
- Besteak beste, berri-taldeen eta "blogen" ezaugarriak, eta horien barruan kontsultak egiteko eta gai zehatzei buruzko iritziak uzteko erabiltzen diren tresnenak deskribatzea.
- Berehalako mezularitzako eta bideokonferentziako tresnek elkarrizketak ezartzeko eta zuzeneko kontaktua ezinezkoa denean jarraibideak argitzeko eskaintzen dituzten funtzionaltasunak identifikatzea eta bereiztea.
- Urrunetik mantentzeko konexioak azaltzea.

Ordenagailua eta bere funtzionamendua informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) oinarritzko erabileran

- Osagai nagusiak.
- Konexioa eta abian jartzea.
- Periferiko motak.

Sistema eragilea informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) oinarritzko erabileran

- Ezaugarriak.
- Erabiltzaile-entzafaze grafikoa.
- Fitxategiak eta karpetak kudeatzea: sistema eragile batean arakatzeko; arakatzeko eta bilatzeko oinarritzko funtzioak.
- Periferikoak erabiltzea.
- Plug and Play sistema eragilea.

Sare lokalak IKTen oinarritzko erabileran

- Erabilerak, ezaugarriak eta problematika.
- Baliabide partekatuetarako sarbidea (biltegiatzea, gailuak).
- Hari gabeko sareak.
- Sarearekin eta tresneriarekin hari gabe konektatzen diren gailuak.

Multimedia-inguruneak IKTen oinarritzko erabileran

- Multimedia-gailuak eta -aplikazioak.
- Multimedia-formatuak.

Testu-prozesadorea IKTen oinarrizko erabileran

- Testu-prozesadorearen egitura eta funtzioak.
- Dokumentuei formatua aplikatzea.
- Dokumentuetan objektuak txertatzea.

Bestelako bulegotika-aplikazioak IKTen oinarrizko erabileran

- Kalkulu-orriko bulegotika-aplikazioak.
- Oinarrizko kontzeptu erlazionalak.

Internet IKTen oinarrizko erabileran

- Ezaugarriak eta erabilerak.
- www dokumentuak.
- Web-ean zeharreko nabigazioa: web nabigatzaileak; nabigatzailearen konfigurazioa; nabigatzailearen deskribapena eta funtzionamendua.
- Web bezeroak: ezaugarriak eta erabilerak.
- Bilatzaileak: ezaugarriak eta erabilerak.
- Sistema eragilea eta aplikazioak Internetetik datozen bidegabeko sarreraren kontra babestea.

Beste Internet zerbitzu batzuk IKTen oinarrizko erabileran

- Posta elektronikoa: funtzionamendua eta motak.
- Berehalako mezularitza: motak eta ezaugarriak.
- Bideokonferentzia: ezaugarriak.
- Foroak: motak eta ezaugarriak.
- Internet zerbitzuen tresnak eta erabilerak.
- Beste Internet zerbitzu batzuk.

Eduki horiek irakatsi ondoren, eduki horiek menderatzen dituenak gai izan beharko du moduluarekin lotzen diren konpetentzia-ataletan deskribatutako lanbide-jarduna gauzatzeko, betiere deskribatutako produkzio- eta informazio-bitartekoak erabiliz, eta hori guztia ohiko lanbide-testuinguruetan eta -egoeretan.

Prestakuntza-testuinguruaren oinarrizko eskakizunak

1. Espazioak eta instalazioak

Informatika-gela, 45 m²-koa.

2. Ekipamenduak

Informatika-tresneria. Sistema eragile jабedunak eta jабegabeak. Sare lokala. Posta elektronikoa. Banda zabaleko Internet konexioa. Sare-zerbitzaria. Internet tresnak: nabigatzaileak, posta elektronikoa jабeduna eta jабegabea. Multimedia-softwarea. Multimedia-gailu jабedunak eta jабegabeak. Bulegotika-aplikazio eta -tresna jабedunak eta jабegabeak.

3. Hezitzailearen lanbide-profila

- a) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eragiketa osagarriak egitearekin lotzen diren ezagutzak eta teknikak menderatzea. Honako modu hauetakoren batekin frogatuko da:
 - Lanbide-alor honekin lotzen den goi-mailako teknikariaren prestakuntza akademikoa izatea, edo goragoko mailakoa.
 - Prestakuntza-modulu honekin lotzen diren konpetentzien alorrean gutxienez 2 urteko lanbide-esperientzia izatea.
- b) Administrazio eskudunek ezartzen dutenaren arabera egiaztatutako konpetentzia pedagogikoa izatea.

4. Prestakuntza-kreditua: MIKROINFORMATIKA SISTEMEN OINARRIZKO MANTENTZE LANAK

Konpetentzia-atal honi lotuta dago: mikroinformatika-sistemetan oinarrizko softwarea instalatzea eta konfiguratzea.

Edukiak eta lorpen-mailaren adierazleak

Magnitude elektrikoak neurgailuak erabilita neurtzea eta emaitzak interpretatzea

- Elektronika digitaleko oinarrizko osagaiak eta mikroinformatika-tresnerian dituzten aplikaziorik

- bereizgarrienak banan-banan aipatzea.
- Informatika-tresneria muntatzeko eta konpontzeko erabiltzen diren neurtzeko aparatuak eta tresnak deskribatzea.
- Magnitude mota bakoitzerako normalizatutako neurtzeko prozedurak definitzea.

Ordenagailu baten arkitekturaren funtsezko oinarriak eskema teorikoen bitartez deskribatzea, eta hura osatzen duten elementuak identifikatzea

- Ordenagailuen bilakaera azaltzea, eta elektronikaren aurrerapen teknologikoen arabera izan diren funtsezko aldaketak aipatzea.
- Barne-memoria, bere erabilgarritasuna, motak eta ezaugarriak definitzea.
- Kanpo-memoriaren (masiboa) kontzeptua, haren erabilera eta ezaugarri nagusiak azaltzea.
- Sarrerako/irteerako unitateen kontzeptua azaltzea eta unitateak sailkatzea.
- Ordenagailu baten barne-funtzionamendua aztertzea, horretarako adibide zehatzetan informazioak ordenagailuan zehar nola zirkulatzen duen adieraziko duten kronogramak erabilia.
- Busaren eta interfazearen kontzeptuak definitzea.

Instalatu edo eguneratu beharreko tresneriaren, periferikoen eta osagaien ezaugarriak aztertzea, eta horietariko bakoitzaren funtzioa sistemaren funtzionamenduarekin eta prestazio globalekin erlazionatzea

- Ordenagailu pertsonal baten eta periferikoen hardware osagaietariko bakoitzaren ezaugarri eta parametro adierazgarrienak identifikatzea, eta haien ahalmenak, prestazioak eta funtzio espezifikoak zehaztea: txasisa, elikatze-iturria, plaka nagusia, prozesadorea, memoria, bideo-moldagailua, audio-moldagailua, modema, sare-moldagailua eta beste moldagailu espezifiko batzuk.
- Ordenagailu baten BIOSak zertarako balio duen azaltzea eta egungo ordenagailuen BIOSen ezaugarri komunak adieraztea.
- Tresneriarekin, periferikoekin eta osagaiekin batera etortzen den dokumentazio teknikoa interpretatzea, haiekin geroztiko eragiketak zuzen, zehazki eta segurtasunez egin ahal izateko.
- Merkatuan dauden hardware osagaiak ebaluatzea eta hainbat irizpideren arabera sailkatzea, katalogo komertzialak, sektoreko aldizkariak, dokumentazio teknikoa edo beste metodo batzuk (Internet) erabilia.
- Hautatutako prozedura justifikatzea, eta besteekin alderatuta dituen alde onak azaltzea.

Informatika-sistemaren tresneria, osagaiak eta periferikoak instalatzea, gero abian jartzeko.

- Hartutako tresneria, osagaiak, periferikoak, softwarea eta dokumentazioa eskatutako zehaztapenekin bat datozela eta behar bezalako egoeran daudela egiaztatzeko jarraitu beharreko prozedura definitzea.
- Tresneria, osagaiak eta periferikoak biltegitzeko baldintzak deskribatzea, egoera ezin hobean eta erabiltzeko prest egon daitezen.
- Informatika-sistemaren elementuak manipulatzeko beharrezkoak diren segurtasun- eta higieneturriak, bai barnekoak eta bai aplikatzeak diren lege-araudiak, definitzea.
